Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko martxoaren 28a, ostirala — 60 — Viernes, a 28 de marzo de 2025

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*107/2025 Foru Agindua, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 4ko 578/2019 Foru Agindua, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra arautzen duena.*

Abenduaren 4ko 578/2019 Foru Aginduaren bidez fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra arautu zen, hala xedatzen baitu 50. artikuluan Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsiak.

Foru agindu horretan, honako hauek ezarri ziren: fabrikazio zerga berezien kontabilitatea eramateko obligazioari begira erabili beharreko kontabilitate liburuak, kontabilitate idazpenak egiteko epea eta haien edukia, zer zehaztapen normatibo eta tekniko diren aplikatzekoak fabrikazio zerga berezien erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramateko, eta, azkenik, nola bete behar diren kontabilitate obligazio horiek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitatea aipatutako egoitza elektronikoaren bidez eramatea dagoeneko orokortuta egonik, orain beharrezko gertatzen da sistema horren alderdi batzuk aldatzea ekitaldiz ekitaldiko kontabilitatean oinarrituko den sistema baterantz joateko, non kontabilitate idazpenen bidalketa mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatzen den kontabilitate ekitaldiari lotuta egongo baita.

Horretarako, ezartzen da kontabilitate ekitaldia urte naturala izango dela, kontabilitate ekitaldi bakoitzaren irekiera eta itxiera egoitza elektronikoaren bidez komunikatu beharko direla, eta itxiera jakinarazi gabe duten kontabilitate ekitaldietako idazpenak ere halaxe bidaliko direla.

Bestalde, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitateak establezimenduan dauden produktu eta lehengaien izakinen irudi fidela eman behar duenez, funtsezkoa da kontabilitate idazpenetan adierazten diren izakinen informazioa uniformea eta zehatza izatea bai kontabilitatea eraman behar duten subjektuentzat bai Zerga Administrazioarentzat. Horretarako, nahitaezkoa da kontabilitate idazpenetan aipatzen diren produktuak ondo agertzea identifikatuta definitutako idazpen eremuen bitartez, eta, produktu bat behin identifikatuta, hari dagozkion kontabilitate idazpen guztiek identifikazio eremu berberak erabiltzea.

Horregatik, foru agindu honetan zehazten dira produktuak kontabilitatean zuzen eta zehatz identifikatzeko aintzat hartu behar diren idazpen eremuak, eta, era berean, oinarrizko irizpide batzuk ezartzen dira produktu horiek kontabilitate ondorioetarako identifikatzeko, izakinei buruz lortzen den informazioa osoa, uniformea eta erabilgarria izan dadin.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 107/2025, de 21 de marzo, por la que se modifica la Orden Foral 578/2019 de 4 de diciembre, por la que se regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.*

Mediante la Orden Foral 578/2019 de 4 de diciembre, se reguló el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 50 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.

Mediante dicha orden foral se establecieron los libros contables y el plazo y contenido de los asientos contables para el cumplimiento de la obligación contable con relación a los impuestos especiales de fabricación, así como las especificaciones normativas y técnicas que desarrollan la llevanza de los libros registro de los impuestos especiales de fabricación a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los términos para el cumplimiento de las obligaciones contables desde el 1 de enero de 2020.

Una vez implantada de forma generalizada la llevanza de la contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación a través de la citada Sede electrónica, resulta necesario modificar algunos aspectos de este sistema, para avanzar hacia un sistema basado en una contabilidad por ejercicios contables, en la que el suministro de los asientos contables esté vinculado al ejercicio contable en que se produce el movimiento, la operación o el proceso.

Para ello se define el ejercicio contable, que coincide con el año natural, y se prevé la realización de las comunicaciones de apertura y cierre de cada ejercicio contable a través de la Sede electrónica y el suministro de asientos contables de los ejercicios contables respecto de los cuales no se haya comunicado el cierre.

Por otra parte, la contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación debe reflejar la imagen fiel de las existencias de los productos y materias primas en el establecimiento, resultando esencial tanto para los sujetos obligados a su llevanza como para la Administración tributaria que la información de las existencias deducidas de los asientos contables sea uniforme y exacta. Para ello, es fundamental que los productos objeto de los asientos contables sean correctamente identificados a través de los campos de asientos definidos y que, una vez identificado un producto, todos los asientos contables relativos al mismo utilicen los mismos campos de identificación.

Por ello, en la presente orden foral se especifican los campos de los asientos contables que deben ser considerados a efectos de la correcta y precisa identificación de los productos en la contabilidad y se establecen unos criterios básicos para llevar a cabo dicha identificación a efectos contables, de forma que sea posible obtener una información de las existencias completa, uniforme y útil.

EK\CV GAO-I-2025-02299

Ardoaren, edari hartzituen eta tarteko produktuen ekoizle txikiei beren kontabilitate obligazioak betetzen laguntzeko, foru agindu honek xedapen gehigarri berri bat dakar, zeinean ezartzen baita edari alkoholdunak egiteko baimenduta dauden establezimenduek posible izango dutela beren kontabilitate idazpenak ardoaren, edari hartzituen eta tarteko produktuen ekoizleentzat luzatutako epeetan bidaltzea, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren eremu objektiboko produktuak baino ekoizten ez dituztenean.

Era berean, ozpin fabrika gisa jarduteko baimenduta dauden establezimenduen kontabilitate betebeharrak betetzea errazte aldera, eta kontuan hartuta ezen, ozpina, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktu bat izan gabe ere, zerga horien xede diren lehengai alkoholdunetatik abiatuta lortzen dela, beste xedapen gehigarri bat sartzen da, ozpina egiteko eragiketei dagozkien kontabilitate idazpenen bidalketa sinplifikatzeko.

Bestalde, abenduaren 4ko 578/2019 Foru Aginduaren eranskina aldatzen da hiru helburu jarrita: kontabilitate ekitaldiaren irekiera eta itxiera jakinarazteko komunikazioen edukia barruan jasotzea, kontabilitate idazpenen edukian hobekuntza batzuk egitea, eta Egoitza elektronikoaren bidez bidaltzen diren kontabilitate idazpenak baliogabetzeko sistema eta epe berriak ezartzea.

Azkenik, eranskin berrian zehazten da zer informazio emango dien Ogasun eta Finantza Departamentuak establezimenduen titularrei, foru aginduan ezartzen diren irizpide eta eremuen arabera identifikatutako produktu eta lehengaiei buruz haiek bidalitako idazpenen kontabilitate izakinei dagokienez.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea 578/2019 Foru Agindua, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra arautzen duena.*

Honela aldatzen da abenduaren 4ko 578/2019 Foru Agindua, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra arautzen duena:

*Bat.* 1. artikuluari 2. apartatu bat gehitzen zaio, eduki honekin:

«2. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitateak fideltasunez islatu behar du, errealitate fisikoa erakutsiz, zenbat produktu kantitate eta, kasua bada, horiek lortzeko zenbat lehengai jaso, bidali, erabili, autokontsumitu, fabrikatu, lortu eta bildu diren unean bakoitzean establezimenduan. Aurrekoa ulertu behar da foru agindu honen 5. eta 6. artikuluetan kontabilitate idazpenak bidali eta erregistratzeko ezartzen diren epeak eragotzi gabe, eta, kasua bada, Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 51. artikuluko 1. apartatuan jasotakoaren arabera zilegi izan litekeen kontabilitate erregularizazioaren kalterik gabe.»

*Bi.* 3. artikuluko 1. eta 2. apartatuak jarraian zehazten den eran berridazten dira, eta 3. apartatua gehitzen zaio artikuluari. Horren ondorioz, egungo 3. apartatuaren edukia 4. apartatu bihurtzen da:

«1. 2. artikuluan adierazten diren establezimenduen titularrek fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitate bat eraman behar dute (baita, behar denean, haiek lortzeko beharrezkoak diren lehengaiena ere) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Horretarako, kontabilitate

Con el fin de facilitar el cumplimiento de sus obligaciones contables a los pequeños elaboradores de vino y bebidas fermentadas y de productos intermedios, se introduce una nueva disposición adicional por la que se admite que los establecimientos autorizados como elaboradores de bebidas alcohólicas que únicamente obtengan productos incluidos en el ámbito objetivo del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas y del impuesto sobre productos intermedios, puedan ser autorizados por la Administración tributaria para suministrar sus asientos contables en los plazos ampliados previstos para elaboradores de vino y para pequeños elaboradores de productos intermedios.

Asimismo, con la finalidad de facilitar el cumplimiento de sus obligaciones contables a los establecimientos autorizados como fábricas de vinagre, y teniendo en cuenta que el vinagre no es un producto objeto de los impuestos especiales de fabricación, pero que se obtiene a partir de materias primas alcohólicas que sí están sujetas a estos impuestos, se introduce una nueva disposición adicional que simplifica el suministro de asientos contables correspondientes a las operaciones de elaboración de vinagre.

Por otra parte, se modifica el anexo de la Orden Foral 578/2019 de 4 de diciembre, incluyendo en el mismo el contenido de las comunicaciones de apertura y de cierre del ejercicio contable, algunas mejoras en el contenido de los asientos contables, y un nuevo sistema y plazos para la anulación de asientos contables que hayan sido suministrados a través de la Sede electrónica.

Finalmente, se establece en el nuevo anexo la información de las existencias contables derivada de los asientos suministrados que el Departamento de Hacienda y Finanzas facilitará a los titulares de los establecimientos, referidas a cada uno de los productos y materias primas, identificados conforme a los criterios y campos previstos en la orden.

En su virtud

DISPONGO

*Artículo único Modificación de la Orden Foral 578/2019, de 4 de diciembre, por la que se regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 578/2019 de 4 de diciembre, por la que se regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación:

*Uno.* Se adiciona un apartado 2 en el artículo 1 con el siguiente contenido:

«2. La contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación deberá reflejar la imagen fiel de la realidad física de las cantidades de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación y, en su caso, de materias primas necesarias para su obtención que hayan sido recibidos, expedidos, empleados, autoconsumidos, fabricados, obtenidos y almacenados en cada momento en el establecimiento. Lo anterior debe entenderse sin perjuicio de los plazos de suministro y de registro de los asientos contables previstos en los artículos 5 y 6 de esta orden foral y de la regularización contable que, en su caso, resulte procedente conforme a lo establecido en el apartado 1 del artículo 51 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.»

*Dos.* Los apartados 1 y 2 del artículo 3 quedan redactados en los siguientes términos, y se añade un apartado 3 al artículo, pasando a numerarse como apartado 4 el contenido del actual apartado 3:

«1. Los titulares de los establecimientos indicados en el artículo 2 deberán llevar una contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, y, en su caso, de las materias primas necesarias para su obtención, a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, me-

EK\CV GAO-I-2025-02299

idazpenak bidali beharko dituzte elektronikoki, foru agindu honetan ezartzen den edukiarekin eta bertan adierazten diren epeei eta prozedurari jarraituz.

2. Kontabilitate horretan fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen prozesuak, mugimenduak eta izakinak islatu behar dira, baita, behar denean, horiek lortzeko beharrezkoak diren lehengaienak ere, haien biltegiraketan, fabrikazioan edo zirkulazioan agerian jartzen diren diferentziak ere barne.

Garagardoaren gaineko zergaren kasuan, ez da beharrezkoa izango ekoizpen prozesuan gehitzen diren lehengaien mugimenduak eta izakinak kontabilitatean jasotzea, lehengai horiek fabrikazio zerga bereziei lotuta ez badaude eta aterakinik ez badute.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergari dagokionez, edari deribatuen fabrikazio eragiketetan ez da beharrezkoa izango lehengaien mugimenduak eta izakinak kontabilitatean jasotzea lehengai horiek alkoholik ez badute eta lortutako edariari alkohol graduaziorik eta bolumenik gehitzen ez badiote.

3. Produktuak eta lehengaiak kontabilitatean identifikatzeko, foru agindu honetako eranskinaren hurrengo apartatuetan zehazten diren eremu informatiboak erabiliko dira:

9.1. Epigrafe fiskala.

9.2. Epigrafearen kodea.

9.3. NC kodea.

9.4. Gakoa.

9.7. Deskribapena.

9.8. Erreferentzia.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan ezarritako eremu informatiboen arabera desberdin identifikatzen diren produktu edo lehengaiak banakatuta islatu beharko dira kontabilitatean.

Adierazitako eremu informatiko horien arabera egiten den identifikazioak ahalbidetu behar du produktuak eta lehengaiak bereizita agertzea kontabilitatean, gutxienez irizpide hauek aplikatuta:

a) Eraldaketa mailaren arabera: lehengaiak, prozesuan dauden edo egiten ari diren produktuak, amaitutako produktuak edo produktu landuak eta, hala badagokio, lortutako azpiproduktuak edo hondakinak, fabrikazio zerga berezien eremu objektiboan sartuta daudenean.

b) Ontzi motaren arabera: fabrikazio zerga bereziei lotuta dauden produktuei galerak direla eta ontzi motaren arabera ezarritako portzentajeak aplikagarri zaizkienean.

Produktuak eta lehengaiak aurreko a) eta b) apartatuetan xedatutako eran kontabilitatean bereizteko, foru agindu honen eranskinaren II. apartatuko «9.7 Deskribapena» eta «9.8 Erreferentzia» eremu informatiboak erabiliko dira.

4. Kontabilitateak lurralde erregistroan inskribatutako biltegi laguntzaileetan izandako produktu mugimenduak ere hartuko ditu barne, Zerga Berezien Erregelamenduko 65. eta 70. artikuluetan xedatzen denarekin bat.»

*Hiru.* 4. artikuluaren 2. apartatuko f) eta g) letrak honela geratzen dira idatzita:

«f) Edari alkoholdunen txikizkako salmenten ondorio diren irteera mugimenduak, haietan zergaren sortzapena gertatzen denean eta salbuespen kasu bat bera ere aplikagarri ez zaienean. Horrelako mugimenduak modu agregatuan bidali ahal izango dira, eguneko idazpen bakar batean produktu bakoitzeko.

g) Edari alkoholdunen eta tabako laboreen gordailu fiskal gisa jarduteko baimenduta dauden establezimenduek egindako salmenten ondorio diren irteera mugimenduak, establezimendu

diante el suministro electrónico de los asientos contables, que se realizará con el contenido, en los plazos y con el procedimiento establecidos en esta orden foral.

2. La contabilidad deberá reflejar los procesos, movimientos y existencias de los productos objeto de los impuestos especiales y, en su caso, de las materias primas necesarias para obtenerlos, incluidas las diferencias que se pongan de manifiesto con ocasión del almacenamiento, fabricación o circulación.

En relación con el impuesto sobre la cerveza, no será necesario reflejar en la contabilidad los movimientos y existencias de las materias primas que se incorporen al proceso productivo que no sean objeto de los impuestos especiales de fabricación y no posean contenido en extracto.

En relación con el Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, en las operaciones relativas a la fabricación de bebidas derivadas no será necesario reflejar en la contabilidad los movimientos y existencias de las materias primas que no posean contenido alcohólico y no aporten graduación alcohólica ni volumen a la bebida obtenida.

3. A efectos contables, los productos y las materias primas se identificarán por el conjunto de campos informativos definidos en los siguientes apartados del anexo de esta orden foral:

9.1. Epígrafe fiscal.

9.2. Código de epígrafe.

9.3. Código NC.

9.4. Clave.

9.7. Descripción.

9.8. Referencia.

En todo caso, deberán tener un reflejo contable diferenciado todos aquellos productos o materias primas con distinta identificación, definida por los campos informativos establecidos en el párrafo anterior.

La identificación, realizada conforme a los campos informativos anteriormente señalados, deberá permitir un reflejo contable diferenciado de productos y materias primas aplicando, al menos, los siguientes criterios:

a) En función de su grado de transformación: las primeras materias, los productos en proceso o en curso, los productos terminados o elaborados y, en su caso, los subproductos o residuos obtenidos cuando estén incluidos en el ámbito objetivo de los impuestos especiales de fabricación.

b) En función de su tipo de envase, cuando se trate productos objeto de los impuestos especiales de fabricación a los que resulten de aplicación los porcentajes reglamentarios de pérdidas establecidos en función del tipo de envase o continente.

La diferenciación contable de los productos y materias primas, conforme a lo dispuesto en los apartados a) y b) anteriores, se realizará mediante los campos informativos 9.7 Descripción y 9.8 Referencia previstos en el apartado II del anexo de esta orden foral.

4. La contabilidad comprenderá los movimientos de productos en los almacenes auxiliares inscritos como tales en el registro territorial, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 65 y 70 del Reglamento de los Impuestos Especiales.»

*Tres.* Las letras f) y g) del apartado 2 del artículo 4 quedan redactadas en los siguientes términos:

«f) Los movimientos de salidas como consecuencia de ventas al por menor de bebidas alcohólicas, en las que se produzca el devengo del impuesto y no resulte aplicable ningún supuesto de exención, que se podrán suministrar de forma agregada en un único asiento diario por cada producto.

g) Los movimientos de salidas como consecuencia de ventas realizadas por establecimientos autorizados como depósitos fiscales de bebidas alcohólicas y de labores del tabaco situados

EK\CV GAO-I-2025-02299

horiek portu eta aireportuetan daudenean eta txikizka baino jarduten ez dutenean. Horrelako mugimenduak modu agregatuan bidali ahal izango dira, eguneko idazpen bakar batean produktu bakoitzeko.»

*Lau.* 4 bis artikulu berria gehitzen da, eduki honekin:

«4 bis artikulua. Kontabilitate ekitaldia irekitzea eta ixtea.

1. Kontabilitate ekitaldia urte naturala izango da. Jarduerari urte naturala hasita dagoela ekiten bazaio, establezimenduari lurralde erregistroan alta ematen zaion egunean hasiko da kontabilitate ekitaldia. Jarduera uzten bada urte naturala amaitu baino lehen, establezimenduari lurralde erregistroan baja ematen zaion egunean amaituko da kontabilitate ekitaldia.

2. Kontabilitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramaten duten establezimenduen titularrek egoitza horren bitartez komunikatu behar dute kontabilitate ekitaldi bakoitzaren irekiera, ekitaldiko kontabilitate idazpenak bidali baino lehen.

Kontabilitate ekitaldiaren irekiera komunikatuta, irekieraren idazpen bat bidaliko da, eta, bertan, kontabilitate ekitaldiaren hasiera egunean establezimenduan dauden izakinen berri emango da. Ez da beharrezkoa izanen irekiera idazpenik bidaltzea, jasotze gordailuen kontabilitateari dagokionez.

3. Kontabilitate ekitaldia amaitutakoan, kontabilitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramaten duten establezimenduen titularrek kontabilitate ekitaldiaren itxiera komunikatu behar dute aipatutako egoitzaren bidez.

Kontabilitate ekitaldiaren itxiera komunikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, itxitako ekitaldiko azken hilabetean egindako mugimendu, eragiketa edo prozesuei dagozkien kontabilitate idazpenak bidaltzeko epea amaitzen den hilabetetik aurrera.

Epe hori igaro eta establezimenduaren titularrak ez badu komunikatu kontabilitate ekitaldiaren itxiera, Zerga Administrazioak ofizioz itxiko du.»

*Bost.* 5. artikuluko 1. eta 2. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

1. Idazpenaren xede den mugimendu, eragiketa edo prozesua gertatu eta hogeita lau ordu baliodunen barruan bidali behar dira elektronikoki kontabilitate idazpenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez. Nolanahi ere, foru agindu honen 4 bis artikuluko 2. apartatuaren bigarren paragrafoan irekierari buruz aipatzen den idazpena kontabilitate ekitaldiaren lehen hilabetean bidali beharko da.

2. Kontabilitatearen ondorioetarako, jarraian adierazten diren eragiketak eta mugimenduak une hauetan egindakotzat jo ahalko dira:

a) Hodi finkoetatik doazen bidalketak, hartzaile berberarentzat egiten direnak, bidalketa amaitzen den unean.

b) Hodi finkoetatik doazen produktuen bidalketak, oliobide sareek osatutako gordailu fiskaletan egindakoak, bidalketa Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako baimenean ezarritako moduan amaitzen denean.

c) Tanga ontziak hodi finkoen bidez kargatu eta deskargatzeko eragiketak, horiek amaitzen diren unean. Amaituta daudela joko da eragiketen xede diren kantitateak zehaztu direnean.

d) Errepidez doazen produktuek establezimenduan egiten dituzten sarrera edo irteera mugimenduak, horiek gertatzen diren unean.

en puertos y aeropuertos y que funcionen exclusivamente como establecimientos minoristas, que se podrán suministrar de forma agregada en un único asiento diario por cada producto.»

*Cuatro.* Se añade un nuevo artículo 4 bis con el siguiente contenido:

«Artículo 4 bis. Apertura y cierre del ejercicio contable.

1. El ejercicio contable coincidirá con el año natural. En caso de inicio de la actividad una vez iniciado el año natural, el ejercicio contable se iniciará en la fecha de alta del establecimiento en el registro territorial. En caso de cese de la actividad antes de la finalización del año natural, el ejercicio contable finalizará en la fecha de baja del establecimiento en el registro territorial.

2. Los titulares de establecimientos que lleven su contabilidad a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberán comunicar la apertura de cada ejercicio contable, a través de la referida Sede, con carácter previo al suministro de los asientos contables del ejercicio.

Una vez comunicada la apertura del ejercicio contable se suministrará un asiento de apertura en el que se informará de las existencias iniciales en el establecimiento en la fecha de inicio del ejercicio contable. No será necesario el suministro del asiento de apertura en relación con la contabilidad de los depósitos de recepción.

3. Una vez finalizado el ejercicio contable, los titulares de establecimientos que lleven su contabilidad a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberán comunicar, a través de la referida Sede, el cierre del ejercicio contable.

La comunicación de cierre del ejercicio contable se realizará dentro de los dos meses siguientes a la finalización del mes en que termine el plazo de suministro de los asientos contables correspondientes a los movimientos, operaciones o procesos realizados en el último mes del ejercicio al que se refiere el cierre.

Transcurrido este plazo, si el titular del establecimiento no hubiera comunicado el cierre del ejercicio contable, éste se realizará de oficio por la Administración tributaria.»

*Cinco.* Los apartados 1 y 2 del artículo 5 quedan redactados en los siguientes términos:

1. El suministro electrónico de los asientos contables a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberá realizarse dentro de las veinticuatro horas hábiles siguientes al momento de producirse el movimiento, operación o proceso objeto del asiento. No obstante lo anterior, el suministro del asiento de apertura al que se refiere el segundo párrafo del apartado 2 del artículo 4 bis de esta orden foral deberá realizarse dentro del primer mes del ejercicio contable.

2. A efectos contables, las operaciones y movimientos que se indican a continuación se podrán considerar realizadas:

a) Los envíos de productos que circulen por tuberías fijas a un mismo destinatario, en el momento en que se complete el envío.

b) Los envíos de productos que circulen por tuberías fijas realizados en los depósitos fiscales constituidos por redes de oleoductos, en el momento en que se complete el envío en los términos establecidos en la correspondiente autorización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

c) Las operaciones de carga y descarga de buques tanque mediante tuberías fijas, en el momento en que se completen, entendiéndose completadas cuando se haya realizado la determinación de cantidades objeto de las operaciones.

d) Los movimientos de entrada o salida de productos en el establecimiento que circulen por carretera, en el momento de producirse las mismas.

EK\CV GAO-I-2025-02299

e) Alkohola gordailu zigilatuko araubidean fabrikatzeko eragiketak, zigilua kentzen den unean, Zerga Berezien Erregelamenduko 81. artikuluan ezarritako terminoetan.

f) Kontabilitate idazpen bakar batean modu agregatuan bidalitako eragiketak eta mugimenduak, foru agindu honen 4.2 artikuluan aipatuak, agregatzen den epealdiko azken egunean.»

*Sei.* 6. artikuluko 3. apartatuari hirugarren paragrafo bat gehitzen zaio, honela dioena:

«3. Kontabilitate sistema informatiko bat duten establezimenduen titularrek sistema hori aukeratzen badute kontabilitatea eramateko eta kontabilitate idazpenak elektronikoki bidaltzeko, aurreko 5. artikuluan adierazitako epeetan erregistratu behar dituzte mugimenduak, eragiketak, prozesuak eta izakinak kontabilitate sistema horretan, eta bost egun balioduneko epea izango dute horiek elektronikoki bidaltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Ondorio horietarako, datuak bidaltzeko epea idazpena establezimenduaren kontabilitate sisteman erregistratzen den egunetik aurrera konputatuko da, foru agindu honen 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Kontabilitate idazpena ez bada erregistratu foru agindu honen 5. artikuluan ezarritako epearen barruan, datuak bidaltzeko epea aipatutako epea amaitzen denetik aurrera konputatuko da.

Barruko kontabilitate sisteman jasotako idazpenen datuek aukera eman behar dute egiaztatzeko idazpenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez bidali direla barruko kontabilitate sistema horretatik abiatuta, eta bidalitako idazpenak behar bezala erregistratu direla bertan. Dena den, horrek ez du eragotziko modu agregatuan bidaltzen diren eragiketak eta mugimenduak, 4. artikuluko 2. apartatuan aipatuak, banan-banan erregistratu ahal izatea barruko kontabilitate sisteman.»

*Zazpi.* 7. artikulua honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. Kontabilitate idazpenak elektronikoki bidaltzeko baldintza orokorrak.

1. Hona hemen zeintzuk bidali ahal izango dituzten elektronikoki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuei buruzko idazpenak eta komunikazioak:

a) Kontabilitatea zein establezimendurena den, horren titularrak berak edo, kasua bada, haren lege ordezkariek.

b) Zergapekoen borondatezko ordezkariek, baldin eta ahalorde edo ahalmenak badituzte Zerga Administrazioari aitorpen eta autolikidazioak haien izenean elektronikoki aurkezteko, edo haren aurrean ordezkari gisa jarduteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak unean-unean ezarritako baldintzetan.

Bidalketa elektronikoa ahalordedunek edo, laguntzaile sozialek ere egin ahal izango dute, horretarako behar bezala baimendu bazaie haiekin formalizatutako akordio edo hitzarmenen bidez, betiere akordio edo hitzarmen horietan aurreikusitako terminoetan.

2. Fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate idazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz bidaltzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Fabrikazio zerga berezien kontabilitate idazpenak bidaltzen dituen establezimenduaren titularrak identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZa) eduki behar du, eta informazioa bidali aurretik identifikatuta agertu behar du Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 3. artikuluan aipatzen

e) Las operaciones de fabricación de alcohol en régimen de depósito precintado, en el momento de efectuarse el desprecintado, en los términos establecidos en el artículo 81 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

f) Las operaciones y movimientos suministrados en un único asiento contable de forma agregada a los que se refiere el apartado 2 del artículo 4 de esta orden, el último día del periodo objeto de agregación.»

*Seis.* Se adiciona un párrafo tercero al apartado 3 del artículo 6, que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Los titulares de los establecimientos que disponiendo de un sistema contable en soporte informático hubiesen optado por la llevanza de la contabilidad y el suministro electrónico de los asientos contables a partir del mismo, deberán registrar los movimientos, operaciones, procesos y existencias en dicho sistema contable en los plazos indicados en el artículo 5 anterior, y realizar el suministro electrónico a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa de los mismos en el plazo de cinco días hábiles.

A estos efectos, el plazo de suministro se computará desde la fecha en que se hubiera registrado el asiento en el sistema contable del establecimiento conforme a lo previsto en el artículo 5 de esta orden foral. En caso de que el asiento contable no se hubiera registrado dentro del plazo establecido en el artículo 5 de esta orden foral, el plazo de suministro se computará desde la finalización del citado plazo.

Los datos de los asientos contables reflejados en el sistema contable interno deben permitir constatar que el suministro de los asientos a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa se ha realizado a partir del referido sistema contable interno, y que los asientos suministrados han sido debidamente registrados en el mismo, sin perjuicio de las operaciones y movimientos que sean objeto de suministro de forma agregada a las que se refiere el apartado 2 del artículo 4, que podrán ser registradas de forma individualizada en el sistema contable interno.»

*Siete.* El artículo 7 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 7. Condiciones generales para realizar el suministro electrónico de los asientos contables.

1. El suministro electrónico de los asientos y las comunicaciones relativas a los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá ser efectuado:

a) Por el propio titular del establecimiento al que se refiere la contabilidad o, en su caso, por sus representantes legales.

b) Por aquellos representantes voluntarios de los obligados tributarios con poderes o facultades para presentar electrónicamente en nombre de los mismos declaraciones y autoliquidaciones ante la Administración tributaria o representarles ante ésta, en los términos establecidos en cada momento por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El suministro electrónico se podrá realizar por apoderados o por colaboradores sociales debidamente autorizados a través de los oportunos acuerdos o convenios suscritos con los mismos y en los términos en ellos previstos.

2. El suministro electrónico de los asientos y de las comunicaciones relativas a la contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, estará sujeto a las siguientes condiciones:

a) El titular del establecimiento al que corresponden los asientos contables de impuestos especiales de fabricación deberá disponer de un número de identificación fiscal (NIF) y estar identificado, con carácter previo a la presentación en el censo de obligados tributarios a que se refiere el artículo 3 del Regla-

den zergapekoen erroldan (abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamendua).

Informazioa bidaltzeko, establezimenduaren titularrak ziurtagiri elektroniko aitortu bat erabili dezake izaera orokorrez, nortasun agiri nazional elektronikoarekin (NAN-e) lotuta egon daitekeena, baina baita beste edozein ziurtagiri elektroniko aitortu ere, unean-uneko araudi indardunaren arabera Zerga Administrazioarentzat onartzeko modukoa bada.

b) Bidalketa ahalordedunek edo laguntzaile sozialek egiten badute, haiek eduki behar dute ziurtagiri elektroniko aitortua. Horrelakoetan, ahalordedunak edo laguntzaile sozialak elektronikoki bidali ahal izango ditu kontabilitate idazpenak, baldin eta Administrazioak aitortu badio baduela ahalmena administrazio prozeduretan bide elektronikoz jarduteko, establezimenduaren titularraren ordezkari gisa.

c) Hala ere, establezimenduaren titularra edo haren ahalordeduna pertsona fisikoak badira eta datuen bidalketa elektronikoa foru agindu honen 8.1. apartatuko b) eta c) artikuluan aipatzen den web formularioaren bidez egiten badute, ziurtagiri elektroniko aitortuaz gain, B@kQ ziurtagiri kualifikatua edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak izaera orokorrez onartzen duen beste edozein sistema ere erabili dezakete.»

*Zortzi.* 8. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitate idazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz bidaltzeko, bide hauetako edozein erabili ahal izango da:

a) Mezuen truke elektronikoan oinarritutako web zerbitzuak.

b) Web formularioa, kontabilitate idazpen bakoitzeko datuak banaka bidaltzea ahalbidetzen duena.

c) Web formularioa, fitxategiak inportatuz. Kontabilitate idazpen multzo bateko datuak batera bidaltzea ahalbidetzen du modalitate honek.

Sistema horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri.»

*Bederatzi.* 9. artikulua honela geratzen da idatzita:

«9. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua.

Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitate idazpenen datuak eta komunikazioak Ogasun eta Finantza Departamentuari bide elektronikoz bidaltzeko erabiltzen diren mezu informatikoek bat etorri behar dute haien edukia jasotzen duten eranskineko erregistro eremuekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ageri diren formatu eta diseinua eduki behar dituzte.»

*Hamar.* 10. artikulua honela geratzen da idatzita:

«10. artikulua. Egindako eragiketa eta mugimenduen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa.

1. Kontabilitate idazpen guztiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratzen diren tauletan eragiketa, mugimendu edo prozesu mota bakoitzerako aurreikusten den agiri do euskarriarekin egon behar dute justifikatuta.

2. Foru agindu honen 2. artikuluan adierazitako establezimenduen titularrek jarraian aipatzen den dokumentazio eta informazioa eduki behar dute uneoro Zerga Administrazioaren ikuskaritza eta esku-hartze zerbitzuen eskura:

mento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

El titular del establecimiento podrá realizar el suministro, con carácter general, mediante un certificado electrónico reconocido, que podrá ser asociado al Documento nacional de identidad electrónico (DNI-e) o mediante cualquier otro certificado electrónico reconocido que, según la normativa vigente en cada momento, resulte admisible por la Administración tributaria.

b) Cuando el suministro se realice por apoderados o por colaboradores sociales serán estos quienes deberán disponer de su certificado electrónico reconocido. En estos casos, el apoderado o el colaborador social podrá realizar el suministro electrónico de los asientos contables siempre que cuente con el reconocimiento administrativo para actuar en procedimientos administrativos por vía electrónica en representación del titular del establecimiento.

c) No obstante, si el titular del establecimiento o su apoderado son personas físicas y realizan el suministro electrónico de datos a través del formulario web a que se refiere el artículo 8.1.b y c) de esta orden foral, podrán utilizar además del certificado electrónico reconocido, el certificado cualificado B@kQ, o cualquier otro sistema admitido con carácter general en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.»

*Ocho.* El apartado 1 del artículo 8 queda redactado en los siguientes términos:

«1. El suministro electrónico de los asientos y de las comunicaciones relativas a la contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación podrá realizarse a través de una de las siguientes formas:

a) Mediante los servicios web basados en el intercambio electrónico de mensajes.

b) Mediante la utilización del formulario web, que permitirá el suministro de los datos de forma individual por asiento contable.

c) Mediante formulario web con importación de ficheros, que permitirá el suministro de los datos de forma conjunta para un grupo de asientos contables.

Estos sistemas estarán habilitados en la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.»

*Nueve.* El artículo 9 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 9. Formato y diseño de los mensajes informáticos.

Los mensajes informáticos por medio de los cuales se realiza la transmisión, por vía electrónica, al Departamento de Hacienda y Finanzas de los datos relativos a los asientos y las comunicaciones relativas a la contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, se ajustarán a los campos de registro en que se concreta el contenido de los mismos que figuran en el anexo, y su formato y diseño serán los que consten en la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Diez.* El artículo 10 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 10. Documentación justificativa e información relativa a las operaciones y movimientos realizados.

1. Todo asiento contable deberá estar justificado con el correspondiente documento o soporte previsto en las tablas publicadas en la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa de tipos de justificantes para cada tipo de operación, movimiento o proceso.

2. Los titulares de los establecimientos indicados en el artículo 2 de esta orden foral, deben tener en todo momento a disposición de los servicios de inspección e intervención de la Administración tributaria, la siguiente documentación e información:

EK\CV GAO-I-2025-02299

a) Establezimenduan egindako fabrikazio eta/edo eraldaketa eragiketen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa, honako hauek zehaztuta: hasiera eta amaiera datak, erabili diren lehengaiak eta produktuak, lortutako produktuak, eta lan agiriaren edo fabrikazio edo eraldaketa eragiketaren zenbakia.

b) Mugimenduak, prozesuak eta izakinak justifikatzen dituen dokumentazioa, arauzkoa zein komertziala, eta, orobat, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen eta horiek lortzeko beharrezkoak diren lehengaien inbentarioen xehetasunak.

c) Foru agindu honen 4. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera, kontabilitate idazpen bakar batean agregatuta bidali diren eragiketa guztien frogagiriak eta haien banakako informazioa.

d) Kontabilitate idazpenak foru agindu honen 6. artikuluan ezarritako modu elektronikoan bidaltzeko erabili den kontabilitate sistema informatikoa, halakorik erabili bada.

3. Egindako mugimenduen, produktuen, izakinen, prozesuen eta eragiketen frogagiriak, haiei buruzko informazioa, eta, kasua bada, baita erabilitako kontabilitate sistema ere, ikuskaritza zerbitzuaren (eta behar denean) esku-hartze zerbitzuaren eskura jarri beharko dira establezimenduan bertan, zerga zorra kasuan kasuko likidazioaren bidez zehazteko Zerga Administrazioak duen eskubidearen preskripzio epea iraungitzen ez den bitartean.

Ondorio horietarako, exijitzen den dokumentazioa euskarri informatikoan eskuratu ahal izango da, baldin eta hura berehala kontsulta badaiteke establezimenduan bertan.»

*Hamaika.* Aginduaren eranskina foru agindu honen eranskinarekin ordezten da.

*Hamabi.* Lehen xedapen gehigarriaren 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren karga tasa zero den bitartean, ardoa edo bestelako edari hartzituak egiteko baimenduta dauden establezimenduen titularrek foru agindu honen I. tituluan xedatutakoari jarraituta eraman behar dute kontabilitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, berezitasun hauek kontuan hartuta betiere:

a) Kontabilitatearen ondorioetarako, ardoa, muztioa eta edari hartzituak elaboratzeko eragiketak, lehengaien sarrerak eta ardoaren edo edari hartzituen txikizkako salmentengatik zerga jada sortuta egindako irteerak, denak ere hilabete natural batean zehar burutuak, horiek egin edo gauzatu diren hilabeteko azken egunean egindakotzat jo ahal izango dira.

b) Ardoa, muztioa eta edari hartzituak elaboratzeko eragiketen kontabilitate idazpenak, lehengaien sarrerenak eta ardoaren edo edari hartzituen txikizkako salmentengatik zerga jada sortuta egiten diren irteerei dagozkienak modu agregatuan bidali ahal izango dira hileko kontabilitate idazpen bakar batean.»

*Hamahiru.* Beste xedapen gehigarri bat sartzen da, seigarrena, honela dioena:

«Seigarren xedapen gehigarria. Edari alkoholdunak elaboratzeko baimena duten establezimenduek kontabilitate idazpenak bidaltzea, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren xede diren produktuak bakarrik ekoizten dituztenean eta haien urteko ekoizpena 100.000 litrotik gorakoa ez denean.

Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren karga tasak zero diren bitartean, edari alkoholdunak elaboratzeko baimena duten establezimenduen titularrek ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergen xede diren produktuak bakarrik egiten badituzte eta tarteko pro-

a) Documentación justificativa e información relativa a las operaciones de fabricación y/o transformación desarrolladas en el establecimiento, con detalle de las fechas de inicio y finalización, las materias primas y productos empleados, los productos obtenidos y el número del parte de trabajo u operación de fabricación o transformación.

b) Documentación reglamentaria y comercial justificativa de los movimientos, procesos y existencias, así como detalle de los inventarios de los productos objeto de los impuestos especiales fabricación y materias primas necesarias para obtenerlos.

c) Documentación justificativa e información individualizada de cada una de las operaciones que, conforme a lo establecido en el apartado 2 del artículo 4 de esta orden foral, hayan sido objeto de suministro en un único asiento contable de forma agregada.

d) El sistema contable en soporte informático a partir del cual se haya realizado el suministro electrónico de los asientos contables conforme a lo previsto en el artículo 6 de esta orden foral, en su caso.

3. La documentación justificativa y la información relativa a los movimientos, productos y existencias, procesos y operaciones realizadas, así como en su caso, el sistema contable, deberán estar a disposición de los servicios de inspección y, en su caso, de intervención, en el propio establecimiento mientras no haya expirado el plazo de prescripción del derecho de la Administración tributaria para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación.

A estos efectos, podrá disponerse de la documentación exigible en soporte informático siempre que la consulta de la misma se pueda realizar sin dilación alguna desde el propio establecimiento.»

*Once.* Se sustituye el anexo por el anexo de la presente orden foral.

*Doce.* El apartado 1 de la disposición adicional primera queda redactado en los siguientes términos:

«1. Mientras los tipos impositivos del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas sean cero, la llevanza de la contabilidad a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa por los titulares de establecimientos autorizados como elaboradores de vino o como elaboradores de otras bebidas fermentadas, se deberá ajustar a las disposiciones recogidas en el título I de esta orden foral, sin perjuicio de las siguientes especialidades:

a) A efectos contables, las operaciones de elaboración de vino, mosto y bebidas fermentadas, las entradas de materias primas y las salidas con impuesto devengado por ventas al por menor de vino o bebidas fermentadas efectuadas a lo largo de un mes natural, se podrán considerar realizadas el último día del mes en el que se hayan desarrollado o realizado.

b) Los asientos contables relativos a las operaciones de elaboración de vino, mosto y bebidas fermentadas, las entradas de materias primas y las salidas con impuesto devengado por ventas al por menor de vino o bebidas fermentadas podrán ser objeto de suministro de forma agregada en un único asiento contable mensual.»

*Trece.* Se añade una disposición adicional sexta con el siguiente contenido:

«Disposición adicional sexta. Suministro de asientos contables por establecimientos autorizados como elaboradores de bebidas alcohólicas, que exclusivamente elaboren productos objeto del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas y del impuesto sobre productos intermedios cuya producción anual no supere los 100.000 litros.

Mientras los tipos impositivos del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas sean cero, la llevanza de la contabilidad a partir del sistema contable en soporte informático conforme a lo dispuesto en el artículo 6 de esta orden foral por los titulares de establecimientos autorizados como elaboradores de bebidas

